



ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

**BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA,
HONETARAKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUENA:**

ARAMAKO UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA KONTRATATZEA

Aramako udaleku irekien zerbitzua antolatu, dinamizatu eta kudeatzea.

2.- Zerbitzuaren egunak eta ordutegia

Udaleku irekiak 2019ko ekaineko 3. Astean hasi eta 2019ko 3. Aстера bitarte emango dira, astelenetik ostiralera. Ordutegia gozoko 9:00 etatik 10:00 etara zaintza eta goizeko 10etatik 13:00etara udalekuak.

3.- Helburuak

Helburu nagusia: Udaleku irekien helburua zera da: 3-12 urte bitarteko umeentzat (hau da, HH3 eta LH6koentzat, biak barne) gozamen espazio ludikoa eskaintzea balio batzuk landuz, hala nola, euskararen sustapena, autonomia pertsonala, berdintasuna eta elkarbizitza, Aramako haurren arteko eta Arama herriarekiko lotura harremana sendotzea, besteak beste.

4.- Enpresa adjudikazio-hartzailearen betebeharrak

Udaleku irekien zerbitzuari dagokionean:

- Udal Udaleku irekien zerbitzua eskaintzea, Araman, onartutako arautegian jasotzen den eran..
- Euskararen erabilera sustatu eta bermatuko da Aramako Udaleku irekietan.
- Zerbitzuan eta zerbitzutik bideratutako ekintzetan neska eta mutilen aukera berdintasuna bermatu.

Zerbitzu-emaileak Aramako udalari, astero zerbitzuaren berri ematen duen txostena bidaliko dio. Txosten horretan jaso beharrekoak, berarekin aurrez adostuko dira.

Materiala

Zerbitzua martxan jartzeko beharrezko material inbentariagarriaren zerrenda adostuko da udala eta adjudikazio hartzailearen artean. Material hori udalak erosiko du eta udalaren jabetzakoa izango da, eta erositakoan udalak lagatako ondasunen zerrendan sartuko da.

Inbentariagarria ez den materialaren kostua adjudikazio hartzailearen gain joango da.



ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

4.1. Beste betebeharrak orokor batzuk.

4.1.1. Zerbitzua eman behar duten pertsonak ondorengo eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- Aisialdirako begirale titulazioa izatea. Praktiketako laguntzaileak izateko aukera egongo da, beti ere gutxienezko ratioen gehiengoa monitore titulazioa daukatenean betetzen bada.
- Euskara ezagutza plegu honetako 5. puntuari jasotzen den bezala.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea.
- Udaleku irekietan izena ematen duten haur kopuruaren arabera, gutxienezko begiraleak izendatzea. Gutxienez hamahiru haurren talde bakoitzeko begirale bat beharko da.

4.1.2. Utzi diren lokal eta materialak egoera onean eduki behar dira.

Kontratua sinatzeko garaian uzten diren ondasunen inbentarioa egingo da adjudikazio-hartzailearen aurrean; inbentario hori kontratuaren indarraldian aldatu egin ahal izango da, bi aldeak horretarako ados egonez gero.

4.1.3. Parte-hartzaileek eta bere langileek portaera ona izan dezaten begiratu eta zerbitzu egokia eskaini.

4.1.4. Aipatutako betebeharrak beste bati ez zeditzea, ez baldin bada Udalaren baimen idatziarekin.

4.1.5. Zerbitzua emateko behar besteko pertsona jartzea.

4.1.6. Betebeharrak laboralak, fiskalak, Gizarte Segurantzakoak eta enpresa bezala betetzea dagokion bere edozein betebeharrak betetzea.

4.1.7. Erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko du adjudikazio hartzaileak.

4.1.8.- Bere plantillan integratutako koordinatzaile bat izendatzea. Izendatu ezean kontratua enpresaren izenean izenpetu duena dela ulertuko da.

4.1.9. Udalarekin kontaktua izateko korreo elektronikoa bat izan beharko du. Korreo hori ez da inoiz erabiliko udal zerbitzuaren erabiltzaileekin kontaktatzeko. Gurasoekin komunikatzeko whatsapp taldea sortzea aholkatzen da, aurreko urteetan egin den eran.

4.2.0 Antolatzen diren irtenaldien kostoa, kilometrajea, sarrerak e.a. udaleko kultura zinegotziarekin adostu beharko dira. Horien kostoa ez dago sartuta kontratazio honetan.

5.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Hizkuntza gaitasuna

Zerbitzua euskaraz eman beharko denez, zerbitzua eman behar duten pertsonak gutxienez B2 maila izan beharko dute, EGA mailako hizkuntza gaitasuna daukatela izatea baloratuko da.

Hizkuntzako arau eta irizpideak

Kontratazio honen bidez bideratuko diren jardueretan eta herritarrekiko komunikazioetan euskarazko harremanak sustatuko dira, Udaleko planean



ARAMAKO UDALA

(GIPUZKOA)

herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuaz.

Udaleku irekietaz arduratzen den zinegotziak emango dizkio enpresa adjudikazio-hartzaileari irizpideon gaineko azalpen zehatzak.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen eta Udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira.

6.- LOKALA ETA BERTAKO MATERIALA

Udalaren betebeharra izango da lokalak egokitzea eta behar den ekipamenduko materiala erostea, baldintza hauetan:

- Adjudikazio-hartzailea utzitako materialaren erantzule egingo da eta zaindu egingo du.
- Adjudikazio-hartzaileak ekipamendurako materiala erosi beharra ikusiko balu, honek udalaren onarpena lortu beharko du aurretik.

Araman, 2019ko maiatzaren 13an

Alkatea

DILIGENTZIA: Plegu hau 2019ko maiatzak 17ko alkate dekretu bidez onartu zen.

Araman, 2019 ko maiatzak 17an

Idazkaria,